

## ANALISIA



LOMCEren aurkako borroka lortu zuen indarrak batzea; lortuko al du murrizketen aurkako borroka?

## Fase berria hezkuntza publikoaren borrokan



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: ECUADOR ETXEA

Urteotan LOMCEk eragindako tsunamiak itzalpean zuen arren, hezkuntza publikoak beste borroka eremu inportante bat duela gogoratu digute EAEko sindikatuek: murrizketak jarri dituzte lehen planoan eta bero hasi dute ikasturtea. Itxialdiak, elkarretaratzeak, solasaldi informatiboak, salaketa egunak, borroka asteak, greba orokorra eta sektoreka-koa... iragarri dituzte udazkenerako, Jaurilaritza negoziatzera presionatu asmoz. Batzuek eta besteek darabilten datu saltsan, Espainiako Estatuak erkidegoekin alderatuta EAEn hezkuntzara bideratzen den diru kopurua gehiago dela nabarmendu izan du Jaurilaritzak; sindikatuek ordea nahiago dute Europarekin konparatu eta salatzen dute Europar Batasuneko batez bestekora ez dela iristen inbertsioa. Errealitatea da 2009tik urtez urte jaitsi dela hezkuntzara bideraturiko dirua, bai kopuru absolututan bai portzentajetan (beste partida batzuek, AHTr auzendutakoak kasu, gora egin dute), gela

bakoitzeko ikasle kopuruak gora egin du, eta behin-behineko irakasleak %40 dira oraindik. Horiek dira sindikatuek borrokatu nahi dituzten puntuetako batzuk.

Horretarako abiatu duten konfrontazio estrategiak emaitzaren bat lortzeko eta benetan presioa egiteko, erantzun irmo eta zabala beharko lukete, oraingoz Jaurilaritzari entzundakoak beste muturrean kokatzen baitira: mobilizazioak ez daudela "inolaz ere" justifikatuta diote, ez dela unea, eta, berriz ere Espainiako Estatuarekin konparatuta, EAEko irakasle publikoek lan-baldintzarik onenak dituztela, pribilegiatuak direla iradokiz. Baina datuak hor daude eta sindikatuek argi dute ez dela irakasleen kontua bakarrik, hezkuntza publikoaren kalitatea eta ikasleen euren heziketa dagoela joan, gizarte osoari dagokion afera dela alegia. LOMCEren aurkako borroka lortu zuen herritarrek hori barneratzea eta indarrak batzea; lortuko al du murrizketen aurkako borroka?

## EKONOMIAREN TALAIAN

## "Munduko alferrok, batu zaitetzte"



Juan Mari Arregi

Milaka langile, frantziar zein euskaldun, kalean erakusten ari dira greba eta manifestazioekin Macronek Frantziako Estatu osoan inposatu nahi duen lan erreformaren kontra daudela. Rajoyren Gobernuak ezarri zuen erreformaren antzekoa da: kaleratuarentzako indemnizazioak merkatzea, multinazionalentzako abantaila gehiago langilea kalera botatzeko, negozioz kolektiborako mugak sindikatuei... Horiek dira hartu nahi dituen neurrietako batzuk, kapitalaren zerbitzura.

Frantziako presidentea, bere marketin pertsonalerako dirutza gastatzen duen bitartean, sindikatuen artean dagoen banaketa aprobetxatu du mobilizazioen aurretik esateko ez duela "alferren, zinikoen eta muturrean dauden aurrean etsiko". Bada, "alfer" horiek, grebalariek, Macroni erantzun diote oihukatuz: "Munduko alferrok, batu zaitetzte". Deialdi horri toki guztietako "alferrek" egin beharko liokete kasu, orain Macronen lan erreformak ordezkatzen duen ofentsiba kapitalistari aurre egiteko. "Macron eta bere munduak legalki hiltzen gaitu" izan da manifestatzaileen beste garrasietako bat.

Macronen erreformak euskal herritarrek ere hiltzen ditu "legalki", Hego Euskal Herrian Rajoyrenak egin bezala. Beste irakasgai bat atara dezakegu beraz: Madril eta Parisen erreforma laboralak sufritu ditugun euskaldunok gure herriaren subiranotasunaren aldeko fronte sozial bat ireki beharko genuke. Horrela baino ez dugu lortuko aberastasunaren banaketa justuago batentzako tresnak izatea eta eskubide sozial eta laboralak bermatzea. Rajoy bezala, Macronek bere erreforma inposatuko digu, baina alferrok ez gara haren aurrean be-launikatuko.